ZARAUZKO UDALA

*INES DIAZ DE VILLAFRANCA ARZAMENDI, Zarauzko Udaleko idazkaria naizen honek*

*ZIURTATZEN DUT: 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran (akta onartzeko dago), Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki zuela:*

**"ZUREKIN ZARAUZKO OSTALARIEN ELKARTEAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA "EMAN BOSTEKOA!" BONUEN KANPAINA KUDEATZEKO.**

Espedientea: 2021T9890005

2021eko apirilaren 15ean, Zarauzko Udalak eta ZUREKIN Zarauzko Ostalarien Elkarteak lankidetza-hitzarmena sinatu zuten udalerriko turismoa eta ostalaritza indartzeko eta sustatzeko.

Ondorengo jarduerak adostu ziren, besteak beste:

- Ekimenak martxan jarri, herriko ostalaritza eta sektore turistikoa indartzeko.
- Programak martxan jarri, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean

COVID-19ak gure herriko turismo sektorean sortutako egoera dela eta, Udal honek erabaki zuen 2021ean hainbat ekintza eta laguntza gauzatzea, zuzenean edo zeharka hortik bizi diren ehunka familiei laguntzeko, eta, bide batez, gure sektoreari eusteko eta gure herriari bizia emateko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan, erakunde laguntzailearen figura jasotzen da, eta honela definitzen da: dirulaguntza ematen duen organoaren izenean eta haren kontura lan eginez, onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkiena, oinarri arautzaileetan hala ezartzen denean, edo dirulaguntza kudeatzen laguntzen duena, jasotako funtsak aldez aurretik eman eta banatu gabe. Funts horiek ez dira inondik ere bere ondarearen zatitzat hartuko.

Hori dela eta, Udalak eta Zurekin Zarauzko Ostalarien Elkarteak adostu dute herriko ostatuetan eta ostalaritzako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko "Eman bostekoa!" bonu kanpaina martxan jartzea behe denboraldian.

Turismo, Jaiak eta Ekitaldiak departamentuak egindako txostena ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

**Lehena.**- ZUREKIN Zarauzko Ostalarien Elkartea erakunde laguntzaile izendatzea ostalaritza eta ostatuen 2021eko udazkeneko bonuen kanpaina kudeatzeko, bera baita udalerrian bakarra eta establezimendu kopuru handia biltzen duena. Bonuen helburua da kontsumoa sustatzea eta sektorea indartzea behe denboraldian.

**Bigarrena.**- Erakunde horrekin jarraian transkribatutako lankidetza-hitzarmena sinatzea. Hor arautuko dira baldintzak eta bere gain hartuko dituen betebeharrak.

ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa

**<u>Hirugarrena</u>.-** ZUREKIN Zarauzko Ostalarien Elkarteari 45.000 euro ordaintzea, ostalaritza eta ostatuen bonuen programarako ("Eman bostekoa!").

**<u>Laugarrena</u>.-** ZUREKIN Zarauzko Ostalarien elkarteak "Eman bostekoa!" programa kudeatzeagatik 4.000 € (BEZ barne) jasoko ditu konpentsazio moduan.

**ZARAUZKO UDALAREN ETA ZUREKIN ZARAUZKO OSTALARIEN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, "EMAN BOSTEKOA!" BONUEN PROGRAMA KUDEATZEKO**

Zarautzen, 2021eko irailaren ……-an

**BILDU DIRA**

Xabier Txurruka Fernandez jauna, Zarauzko Udalaren alkate gisa.

eta

Martin Arguiñano jauna, ZUREKIN Zarauzko Ostalarien Elkartearen ordezkaria, lehendakari gisa.

Bi aldeek hitzarmen hau formalizatzeko behar besteko lege-gaitasuna eta ordezkaritza aitortzen diote elkarri, eta horri jarraiki honakoa

**ADIERAZTEN DUTE:**

**<u>LEHENA</u>**

2021eko apirilaren 15ean, Zarauzko Udalak eta ZUREKIN Zarauzko Ostalarien Elkarteak (aurrerantzean ZUREKIN) lankidetza-hitzarmena sinatu zuten udalerriko turismoa eta ostalaritza indartzeko eta sustatzeko.

Ondorengo jarduerak adostu ziren, besteak beste:

- Ekimenak martxan jarri, herriko ostalaritza eta sektore turistikoa indartzeko.
- Programak martxan jarri, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean

COVID-19ak gure herriko turismo sektorean sortutako egoera dela eta, Udal honek erabaki zuen 2021ean hainbat ekintza eta laguntza gauzatzea, zuzenean edo zeharka hortik bizi diren ehunka familiei laguntzeko, eta, bide batez, gure sektoreari eusteko eta gure herriari bizia emateko.

**<u>BIGARRENA</u>**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan, erakunde laguntzailearen figura jasotzen da, eta honela definitzen da: dirulaguntza ematen duen organoaren izenean eta haren kontura lan eginez, onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkiena, oinarri arautzaileetan hala ezartzen denean, edo dirulaguntza kudeatzen laguntzen duena, jasotako funtsak aldez aurretik eman eta banatu gabe. Funts horiek ez dira inondik ere bere ondarearen zatitzat hartuko.

**<u>HIRUGARRENA</u>**

Bonu horiek eraginkortasunez kudeatzeko, nahitaezkoa da ZUREKINen lankidetza. Horrenbestez, eta bi aldeak ados daudenez, honako hitzarmen hau sinatzea adostu dute, ondorengo klausulen arabera:

**KLAUSULAK**

**<u>Lehena</u>.- Xedea**

Hitzarmen honen xedea da ZUREKINek "Eman bostekoa!" bonuen kanpaina kudeatzea, ostalaritzan eta ostatuetan kontsumoa bultzatzeko behe denboraldian, hitzarmen honen eranskinean azaltzen den araudiarekin bat etorriz.

**<u>Bigarrena.</u> Establezimenduek bete beharreko baldintzak**

Zarautzen establezimenduak dituzten ostalaritza- eta ostatu-enpresei zuzenduta dago programa (merkataritzakoak eta antzekoak kenduta).

ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa

ZARAUZKO UDALA

**<u>Hirugarrena</u>.- ZUREKINen betebeharrak**

ZUREKINek honako betebehar hauek ditu:

a) Programan atxikitzeko eskaerak tramitatu (hitzarmen honen eranskinean jasota dago atxikipen-eskaera).

b) Ostalaritza eta ostatuetako bonuak kudeatu (jarraian jasotako araudiaren arabera).

c) Egiaztatu, hala badagokio, bonuak adjudikatzeko baldintza edo betekizun erabakigarriak betetzen direla eta eraginkorrak direla.

d) Jasotako funtsak entregatu dituela justifikatu dirulaguntza eman duen organoaren aurrean, eta, hala badagokio, onuradunek aurkeztutako justifikazioa aurkeztu.

e) Udalak funts horien kudeaketari buruz egiten dituen egiaztapen-jarduerak onartu, jarduerok gauzatzean eskatzen zaion informazio guztia emanez.

**<u>Laugarrena</u>.- Epeen iraupena**

Hitzarmen honek ondorengo iraupena izango du: 2021eko urritik 2022ko urtarrilaren 31 arte.

**<u>Bosgarrena</u>.- Finantziazioa**

Bonuak finantzatzeko gehienezko kreditua 45.000 eurokoa da.
Zenbateko horretan ondorengo kontzeptuak aurreikusita daude:

- Kanpainaren berezko gastu guztiak (txartelak inprimatzea, kudeaketa finantzarioa, diseinu grafikoa, etab.)
- Bonuak. Gutxienez ondorengo kopuruak zuzenduko dira berez bonuetara:
    - 43.000 € bonotan, atxikitzen diren ostalaritza- eta ostatu-enpresen artean banatzeko

Gastua aurrekontu-partida honen kontura egingo da: 1501.481.02.430.00 2021 Dirulaguntza: Zurekin.

Bestalde, ZUREKINek 4.000 € (BEZ barne) jasoko ditu konpentsazio moduan. Kopuru hori, faktura bidez ordainduko zaio ondorengo partidatik: *1 1501.226.11.430.00 2021 Merkataritza eta ostalaritzaren dinamizazioa.*

**<u>Seigarrena</u>.- Justifikazioa aurkezteko epea eta modua**

ZUREKINek 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen justifikatu beharko du onuradunei funtsak entregatu dizkiela. Horretarako, dagozkion ordainagiriak aurkeztuko ditu.

**<u>Zazpigarrena</u>.- Kontabilitateko liburuak eta erregistroak**

ZUREKINek dagokion kontabilitate-liburu eta -erregistroetan formalizatu beharko du establezimendu onuradunen artean bi aldietako bakoitzean egindako banaketa.

**<u>Zortzigarrena</u>.- Funtsak itzultzea**

ZUREKINek itzuli egingo ditu funtsak, baldin eta hitzarmen honetan edo programaren araudian jarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez baditu.

Eta agiri honetan jasotakoarekin eta hitzartutakoarekin ados daudela adierazteko, bi aldeek dokumentu honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean. Alde bakoitzak ale bat jaso du.

Agiri honekin batera erantsita doaz atxikipen-eskaera (negozio interesdunek osatu eta sinatu behar dutena) eta "Eman bostekoa!" programaren funtzionamendu-araubidea.

## *<u>"Eman bostekoa!" PROGRAMAREN ARAUDIA</u>*

1. *"Eman bostekoa!" programa ZUREKIN Zarauzko Ostalarien elkarteak kudeatzen du, Turismo Departamentuaren laguntzarekin eta Zarauzko Udalaren finantzaketarekin eta ikuskapenarekin.*

ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa

2. *Zarautzen establezimenduak dituzten ostalaritza- eta ostatu-enpresentzat da kanpaina hau (merkataritza eta antzekoak ez dira hemen sartuko).*

3. *Programa 2021eko urria eta azaroa bitartean egingo da. Datak aldez aurretik jakinaraziko dira.*

4. *Gutxienez 8.600 bonu banatuko dira (edo besteren bat gehiago, ekintzari erantsitako gastuen arabera).*

5. *Enpresa bakoitzak izango duen bonu-kopurua kanpainan parte hartuko duten enpresa-kopuruak baldintzatuko du. Horrela, bonu-kopurua zati enpresa-kopurua egingo da, enpresa guztiek bonu-kopuru bera izan dezaten; modu honetara, ekitatea lortuko da banaketan.*

6. *Establezimendu bat baino gehiago dituzten enpresen kasuan, gehienez ere 2 establezimenduk eskuratu ahal izango dituzte bonu horiek, baldin eta Ogasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ) bakoitzak berea ordaintzen badu.*

7. *Bonuek 5 euroko balioa izango dute. Programa honetan parte hartzen duten establezimenduek bonuak banatuko dituzte beren bezeroen artean. Kontsumitze-tiket bakoitzeko gehienez bi bonu entregatuko dituzte.*

8. *Enpresak entregatutako bonuak hurrengo kontsumoan kanjeatuko ditu bezeroak. Enpresak gehienez ere 2 bonu onartu ahal izango ditu kontsumitze-tiket bakoitzeko.*

9. *Ez dira onartuko bonua baino balio gutxiagoko salmenta edo kontsumo ticketak*

10. *Enpresak bonu guztiak erabili ondoren, Turismo Bulegora eraman beharko ditu "Eman bostekoa!" jatorrizko txartelak, kontsumitze-tiket bakoitzaren kopiarekin grapatuta.*

11. *Faktura edo kontsumitze-tiketa argi eta garbi ikusi beharko da kontsumitze-data.*

12. *Ostalariek eta ostatuek, programara atxikitu ahal izateko, kanpainarako sortutako formularioa bete beharko dute. Edozein zalantza argitzeko 688614473 telefono zenbakira deitu dezakete.*

13. *Bezeroek 2021eko azaroaren 1etik 30era erabil ditzakete kanpaina honetako bonuak.*

14. *Parte hartuko duten enpresek Turismo Bulegoan (Kale Nagusia 30) hartu ahal izango dituzte bonuak 2021eko urriaren 25etik 29ra.*

15. *Ez dira onartuko dataz kanpo egindako salmenta hobaridunak.*

16. *Enpresa parte-hartzaileek edukiko dituzte bonuak bezeroen eskura.*

17. *Parte hartzen duten enpresek ezin izango dituzte bonuak gorde, ezta bezeroren batentzat jaso ere.*

18. *Kontsumitzaileak adinez nagusia izan beharko du.*

19. *Erabilitako bonuak 2021eko abenduaren 12tik 16ra (biak barne) Turismo Bulegoan entregatu beharko dira, ordainketarako, honako ordutegian: 09:30-13:30.*

20. *Txeke izendunaren bidez ordainduko da, enpresaren izenean.*

21. *Enpresa parte-hartzaileak kanpainaren ezaugarrien berri eman beharko die kontsumitzaileei.*

22. *Kartela edo beste sustapen-elementuren bat egongo balitz, erakusleihoan edo erraz ikus daitekeen lekuren batean jarri beharko dute edo egoki hedatu.*

23. *Enpresak eskatutako informazio eta dokumentazio guztia eman beharko die Zarauzko Udalari edota ZUREKINen kudeatzaileari kanpainaren berezko baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.*

24. *Bonuak kobratzean, enpresak inkesta bat bete beharko du.*

ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa

25. *Atxikitze-agiriaren sinatzaileak baimena ematen die Zarauzko Udalari eta ZUREKINi "Eman bostekoa!" programan parte hartzeko emandako datuak erabil ditzaten programa hori gauzatzeko eta enpresarentzat garrantzitsua den beste edozein informazio jakinarazteko (laguntzak, kanpainak, formakuntza…)."*

*Hala jasota gera dadin eta dagokion lekuan eragina izan dezan, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, alkate jaunak ontzat emana, Zarautzen 2021eko urriaren hogeita seian.*

*OE*
*Alkatea* *Idazkaria*

ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa

*INÉS DIAZ DE VILLAFRANCA ARZAMENDI, Secretaria del Ayuntamiento de Zarautz,*

*CERTIFICO: Que la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 25 de octubre de 2021, cuya acta se encuentra pendiente de aprobación, adoptó el siguiente acuerdo:*

**"CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ASOCIACIÓN DE HOSTELERÍA DE ZARAUTZ ZUREKIN Y EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ, PARA LA GESTIÓN DE LA CAMPAÑA DE BONOS "EMAN BOSTEKOA!".**

Expediente: 2021T9890005

El 15 de abril de 2021, el Ayuntamiento de Zarautz y la Asociación de Hostelería de Zarautz ZUREKIN firmaron un convenio de colaboración para promover y reforzar el turismo y comercio local.

Entre otras, se acordaron las siguientes acciones:

- Poner en marcha iniciativas para fortalecer la hostelería y el sector turístico local.
- Poner en marcha programas en colaboración con los agentes locales.

Dada la situación provocada en el sector turístico de nuestra localidad por la COVID-19, este Ayuntamiento decidió llevar a cabo diferentes iniciativas y ayudas durante 2021 para ayudar directa o indirectamente a los centenares de familias que viven de él, y, al mismo tiempo, para mantener al sector y dar vida a la localidad.

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones contempla en su artículo 12 la figura de la entidad colaboradora definiéndola como aquella que, actuando en nombre y por cuenta del órgano concedente a todos los efectos relacionados con la subvención, entregue y distribuya los fondos públicos a los beneficiarios cuando así se establezca en las bases reguladoras, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos. Estos fondos, en ningún caso, se considerarán integrantes de su patrimonio.

Por ese motivo, el Ayuntamiento y la Asociación de Hostelería de Zarautz ZUREKIN han acordado poner en marcha en temporada baja la campaña de bonos "Eman bostekoa!" para propiciar el consumo en establecimientos locales de hostelería y alojamiento.

Visto el informe emitido por el Departamento de Turismo, Fiestas y Eventos, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, **ACUERDA**:

**Primero**.- Designar ZUREKIN, Asociación de Hostelería de Zarautz, entidad colaboradora para la gestión de la campaña de otoño de bonos de hostelería y alojamiento, ya que es la única en el Municipio y que agrupa a un importante número de establecimientos. El objetivo de los bonos es incentivar el consumo y fortalecer el sector en temporada baja.

ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa

**Segundo**.- Firmar con esta asociación el convenio de colaboración que se detalla a continuación. Aquí se regularán las condiciones y las obligaciones que asumirán.

**Tercero.-** Pagar a la Asociación de Hostelería de Zarautz ZUREKIN 45.000 euros para el programa de bonos de hostelería y alojamientos ("Eman bostekoa!").

**Cuarto**.- La Asociación de Hostelería de Zarautz ZUREKIN recibirá 4.000 euros a modo de compensación por la gestión del programa "Eman bostekoa!".

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ Y ZUREKIN, ASOCIACIÓN DE HOSTELERÍA DE ZARAUTZ PARA LA GESTIÓN DEL PROGRAMA DE BONOS "EMAN BOSTEKOA!"**

En Zarautz, a .. de septiembre de 2021

**REUNIDOS**

D. Xabier Txurruka Fernandez, en su calidad de Alcalde del Ayuntamiento de Zarautz

y

D. Martin Arguiñano, en representación de ZUREKIN, Asociación de Hostelería de Zarautz, en su calidad de Presidente.

Ambas partes se reconocen la capacidad legal y representación necesarias para formalizar el presente convenio, y en virtud de ello,

**MANIFIESTAN**

**PRIMERO**

El 15 de abril de 2021, el Ayuntamiento de Zarautz y la Asociación de Hostelería de Zarautz ZUREKIN (en adelante ZUREKIN) firmaron un convenio de colaboración para promover y reforzar el turismo y comercio local.
Entre otras, se acordaron las siguientes acciones:

- Poner en marcha iniciativas para fortalecer la hostelería y el sector turístico local.
- Poner en marcha diferentes programas en colaboración con los diferentes agentes locales.

Dada la situación provocada en el sector turístico de nuestra localidad por la COVID-19, este Ayuntamiento decidió llevar a cabo diferentes iniciativas y ayudas durante 2021, para ayudar directa o indirectamente a los centenares de familias que viven de él, y, al mismo tiempo, para mantener al sector y dar vida a la localidad.

**SEGUNDO**

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones contempla en su artículo 12 la figura de la entidad colaboradora definiéndola como aquella que, actuando en nombre y por cuenta del órgano concedente a todos los efectos relacionados con la subvención, entregue y distribuya los fondos públicos a los beneficiarios cuando así se establezca en las bases reguladoras, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos. Estos fondos, en ningún caso, se considerarán integrantes de su patrimonio.

**TERCERO**

Para la gestión eficiente de aquellos bonos de consumo se considera imprescindible contar con la colaboración de ZUREKIN, y, estando ambas partes de acuerdo, acuerdan la suscripción del presente convenio, con arreglo a las siguientes,

**CLAUSULAS**

**Primera.- Objeto**

Es objeto del presente convenio la gestión por parte de la entidad ZUREKIN, de un sistema de bonos "Eman bostekoa!" con la finalidad de promover el consumo en hostelería y alojamientos en temporada baja, conforme a la normativa que figura como anexo al presente convenio.

**Segunda. Condiciones para la participación de los establecimientos**

ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa

El programa está dirigido a las empresas de hostelería y alojamientos con establecimientos en Zarautz (excluidos los comercios y similares).

**Tercera**.- Obligaciones de ZUREKIN

La Asociación ZUREKIN asume las siguientes obligaciones:

a) Tramitar las solicitudes de adhesión al programa conforme al anexo recogido en el presente convenio.

b) Gestionar los bonos de los establecimientos de hostelería y alojamientos (según la normativa incluida a continuación).

c) Comprobar, en su caso, el cumplimiento y efectividad de las condiciones o requisitos determinantes para la adjudicación de los bonos.

d) Justificar la entrega de los fondos percibidos ante el órgano concedente de la subvención y, en su caso, entregar la justificación presentada por los beneficiarios.

e) Someterse a las actuaciones de comprobación que respecto de la gestión de dichos bonos pueda efectuar el Ayuntamiento, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

**Cuarta.- Plazo de vigencia**

El presente convenio tendrá la duración siguiente: de octubre de 2021 al 31 de enero de 2022.

**Quinta.- Financiación**

El crédito máximo para financiar los bonos es de 45.000 €.
En el mencionado importe se encuentran incluidos los siguientes gastos:

- Gastos inherentes a la campaña (impresión tickets, gestión financiera, diseño gráfico, etc…),
- Bonos, destinándose al menos la siguiente cantidad a los bonos propiamente dichos:
    - 43.000 euros en bonos a repartir entre las empresas de hostelería y alojamientos que se adhieran a la campaña.

El gasto lo será con cargo a la partida presupuestaria 1501.481.02.430.00 2021 Subvención: Zurekin.

Por otra parte, ZUREKIN recibirá 4.000 euros a modo de compensación por la gestión del programa "Eman bostekoa!". Dicha cantidad se abonará en forma de pago de factura a cargo de la partida 1 1501.226.11.430.00 2021 *Merkataritza eta ostalaritzaren dinamizazioa*.

**Sexta.- Plazo y forma de la presentación de la justificación**

ZUREKIN deberá justificar antes del día 31 de enero de 2022 la entrega de los fondos a los beneficiarios mediante los correspondientes documentos justificativos de los pagos.

**Séptima.- Libros y registros contables**

ZUREKIN deberá formalizar en los correspondientes libros y registros contables la distribución de los bonos entre los establecimientos beneficiarios en cada uno de los períodos

**Octava.- Reintegro**

ZUREKIN vendrá obligada al reintegro de los fondos en el supuesto de incumplimiento de los requisitos y obligaciones establecidas en el presente convenio y en la normativa reguladora del programa.

Y en prueba de conformidad con lo recogido y convenido en este documento, las partes lo firman por duplicado en el lugar y fecha del encabezamiento, quedando un ejemplar en poder de cada una de las partes.

Adjunto a este documento se recogen el documento de adhesión que deben rellenar y firmar los negocios interesados y la normativa de funcionamiento del programa "Eman bostekoa!".

ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa

ZARAUZKO UDALA

# NORMATIVA PROGRAMA "EMAN BOSTEKOA!"

1. El programa "Eman bostekoa!" está gestionado por ZUREKIN, Asociación de hostelería de Zarautz, con la colaboración del departamento de Turismo y la financiación y supervisión del Ayuntamiento de Zarautz.
2. Esta campaña es para las empresas de hostelería y alojamientos que tienen establecimientos en Zarautz.
3. El programa se realizará entre octubre-noviembre de 2021 en fechas que se comunicarán con antelación.
4. Se repartirán al menos 8.600 bonos (o alguno más, dependiendo de los gastos asociados a la iniciativa).
5. El número de bonos repartidos a cada empresa dependerá del número de empresas adheridas. Este resultará de dividir el número de bonos entre el número de empresas, de tal modo que todas las empresas cuenten con el mismo número de bonos, consiguiendo así equidad en el reparto.
6. En el caso de empresas con más de un punto de venta, podrán acceder a estos bonos un máximo de 2 establecimientos siempre y cuando ambos paguen el IBI de manera individual.
7. Los bonos tendrán un valor de 5 €. Los establecimientos participantes en este programa repartirán los bonos entre sus clientes. Por cada ticket de consumición se entregarán como máximo dos bonos.
8. El cliente canjeará los bonos en una consumición posterior. La empresa admitirá un máximo de dos bonos por ticket de consumición.
9. No se admitirán ventas o consumiciones de valor inferior al del bono.
10. Después de haber utilizado todos los bonos, la empresa tendrá que llevar a la Oficina de Turismo los bonos originales grapados a una copia del ticket correspondiente a la consumición.
11. En la factura o el ticket de venta se deberá ver bien clara la fecha de la consumición.
12. Para poder adherirse al programa, los establecimientos de hostelería y alojamientos tendrán que rellenar el formulario creado para esta campaña. Para aclarar cualquier duda se puede llamar al 688614473.
13. El periodo para utilizar los bonos de esta campaña será del 1 al 30 de noviembre de 2021.
14. Las empresas participantes podrán recoger los bonos en la Oficina de Turismo (Kale Nagusia, 30) entre el 25 y el 29 de octubre.
15. No se admitirán ventas bonificadas realizadas fuera de las fechas que se indiquen.
16. Serán las empresas participantes las que tendrán los bonos a disposición de sus clientes.
17. Las empresas participantes no podrán retener bonos ni reservarlos para ningún cliente.
18. La persona consumidora deberá ser mayor de edad.
19. Estos bonos utilizados deberán ser entregados para su abono entre el 16 y el 19 de diciembre (ambos incluidos) en la Oficina de Turismo en horario de 9:30 a 13:30.
20. El abono de los mismos se realizará mediante cheque nominativo a nombre de la empresa.
21. La empresa participante deberá informar de las características de la campaña a las personas consumidoras.
22. Si hubiera cartel u otro elemento promocional, deberá mostrarlo en su escaparate (y, en su defecto, en un lugar visible del mostrador) o darle la difusión oportuna.
23. La empresa deberá facilitar al Ayuntamiento de Zarautz y/o al gestor de ZUREKIN cuanta información y documentación le sea solicitada al objeto de verificar la correcta aplicación de las condiciones propias de la campaña.

ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa

24. *La empresa deberá rellenar una encuesta al cobrar los bonos.*

25. *El firmante del documento de adhesión consiente que los datos aportados para la adhesión al programa "Eman bostekoa!" sean usados por el Ayuntamiento de Zarautz y a ZUREKIN para la ejecución de dicho programa y la comunicación de otra información relevante para la empresa (ayudas, campañas, formación…)."*

*Para que así conste y surta sus efectos donde proceda extiendo y firmo la presente con el visto bueno del Sr. Alcalde, en Zarautz a veintiséis de octubre de 2021.*

*VºBº*
*El Alcalde*

*La Secretaria*

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUbfdb477f-fc31-45f2-ac2c-246cf34025fa**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***